

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresak hasieran 7 langile izango ditu, langile hauek ohearen fabrikazioan parte hartuko dute. Gure taldeak merkatua aztertuko du eta gure produktuaren prezioa merkatuaren egoerara moldatuko da, hau da, ez ditugu prezio desorekatuak jarriko. Garraioa egiteko beste enpresa batzuk lagunduko digute. Lokal bat alokatuko dugu, lokal honen kostua 1500€ izango dira.

Gure langileak ez dute titulu unibersitario berezirik beharko gure enpresan lan egiteko, gure produktuak egiteko lan mekanikoa bakarrik behar dugulako, Langileak 7 ordu egunero egingo dute lan asteburuan izan ezik, hau da astean zehar 35 ordu lan egingo dute eta beraien soldata 1200 eurokoa izango da.

Hasiera batean gure enpresa aurrera ateratzeko gure poltsikotik dirua jarriko dugu eta aurrera doala enpresak lortuko duen etekinetatik langileak, garraioa eta gastu guztiak ordainduko ditugu.

Gure produktua egiteko behar den materiala beste enpresa batzuegandik eskuratuko dugu, hau da, beste enpresa batzuen bidez materialak lortuko ditugu. Material hauek gure enpresak erosiko ditu, hau eginez gure produktua sortuko dugu. Gure produktuak saltzeko garraioa beharko dugu eta garraioa beste enpresa batzuegandik eskuratuko dugu, jarraian gure produktua dendetara eramango du ondoren han saltzeko. Denda hauek *Decathlon* eta *Forum Sport* izango dira hasiera batean, denbora pasa hala espero dugu beste denda batzuetan gure produktua saltzea.

Materialak eskuratuta gure lankideak makinaren bidez gure produktua egingo dute. Makina hauek guk erosiko ditugu, haien eginkizuna izango da gure produktua moldatu eta paketetan sartu ondoren produktua saldu ahal izateko.



Kanpoko erabakiak hala nola zer material erosi edo zer garraio mota erabiliko dugun gu geuk aukeratuko dugu. Denbora pasa hala espero dugu instalazioak hobetzea eta lankide gehiago izatea, honen bitartez gure produkzioa handitzeko eta honek etekin gehiago eskuratzeko.